

Auto berean joaten dira lantokira Ane eta Peru



Biek arropa berdina janztea oso gustuko dute



EHULKUren aholkua

bera / berdin



Nahasian erabiltzen dituzte zenbait hiztunek **bera** eta **berdin**. Zeinek bere balioa dute, ordea.

auto bera ≠ **auto berdina**

Auto berean joaten dira lantokira Ane eta Peru.

Auto **berdina** erosi dute biek, Renault etxeko Clio berria.

arropa bera ≠ **arropa berdina**

Arropa **bera** ipini zuen aurkezleak lehengo astean eta atzo.

Biek **arropa berdina** janztea oso gustuko dute.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea



BERA

- Moluskuek jatorri bera dute; arbaso beraren eboluziotik sortu dira.
- Etxe berean haziak gara.
- Pasieran zebilela, berriz ikusi zuen emakume bera.

Berak erreferente bakarra du adibide horietako bakoitzean.

BERDIN

- Ornodun guztietan, erreakzio kimiko berdinak aurkitzen ditugu.
- Etxe berdinetan bizi dira milaka pertsona auzo berean.
- Zati berdinetan zatitu zuen okela.

Berdin erabilita, erreferente bat baino gehiago adierazten da; erreferenteok ez dira bat eta bera, baizik eta beren arteko berdintasuna egozten zaie.

Horrenbestez, desegokiak dira honelakoak:

- ***Neskatila berdina** etorri zen atzo eta lehengo astean.
- ***Urte berdinean** ehortzi zituen senarra eta semea.
- ***Inguruka ibili ziren, galduta, beti leku berdiner**a bihurtzen zirela.
- ***Beste ekitaldi bat dut toki berdinean eta ordu berdinean.**

Honela behar dute aurreko esaldiek:

- **Neskatila bera** etorri zen lehengo astean eta atzo.
- **Urte berean** ehortzi zituen senarra eta alaba.
- Inguruka ibili ziren, galduta, beti **leku berera** bihurtzen zirela.
- Beste ekitaldi bat dut **toki berean** eta **ordu berean**.

Hona **bera** eta **berdin** esaldi berean bildurik:

- **Gaitz bera** izanik ere, ez da **bi eri berdini**k.
- Bost ontzietako bidaiariak **abesti bera** oihukatzen zuten, haren **erritmo beti berdina** zerurantz igotzen zela.

Kolore bera **ala** kolore berdina?

Batzuetan, lausoa da **bera** eta **berdin**en arteko muga. Izen abstraktuekin batez ere: *balio, erantzun, iritzi, kolore...*

Dena dela, **bera** da erabiliena tradizioan:

- Hodeiek hondar bustiaren **kolore berbera** hartu zuten.
- Orain ere **iritzi bera** dut.
- Badaki gure gogoetariak ez dutela gauzek eta jendeek **balio bera**.

Hala ere, **berdin** ere erabiltzen da halakoetan:

- *Gure azeria ez zan behintzat **iritxi bardiñekoa** (Bilbao, Ipuin barreka).*
- **Luzera berdineko kaleak.**
- **Kopuru berdinak.**

bertsu **ala** beretsu?

Honela dio *Hiztegi Batuak*:

beretsu* e. bertsu

bertsu 'ia bera'

Laburdurak:

* Forma okerra edo euskara batuan
saihestekoa

e. Erabil (erabili beharreko forma)

Hona adibide batzuk:

- Mirenek **kezka bertsua** zerabilela ohartu nintzen.
- Hamar bat lagun bazen han, eta denek **itxura bertsua** zuten.
- **Ohitura bertsua** omen dute Europa aldean ere.
- Laxoko jokoak errebotekoaren **lege bertsuak** ditu.



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

